

Kaixo STEILAS kide,

Gaurko Mahai Sektorialean jorratutako gaien berri emango dizuegu:

- LANBIDE HEZIKETA TEKNIKOEN EPEa
 - EPE deialdia abenduaren 21a baino lehen izango da eta 10 eguneko epea egongo da izen emateko. Eskakizunak data horretan bete behar dira onartua izateko.
 - Azterketak 2022an egingo dira.
 - Deialdi hau aurreratzearen arrazoia LOMLOEren onespena pentsatu baino lehenago izango dela da (abendua). Lege honetan Lanbide Heziketa Teknikoen Kidegoa desagertzen da, eta ahalik eta lanpostu gehien deituko ditu Hezkuntza Departamentuak LOMLOE onartu baino lehen, lege honek ekarriko dituen aldaketak saihesteko.
- EGUNEROKO LET
 - Urtarriletik aurrera Lanpostuen Esleipen Ekitaldiak egunerokoak izango dira: astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan. Ostegunetan deialdi berezia mantenduko da.
 - Deialdi bakoitza hasten den eguneko 14:00etatik hurrengo egun baliaduneko 08:30ak arte izango da.
- URTARRILEKO LETak
 - Urtarrilaren 5ean eta 7an LET deialdi normalak egongo dira 11an lanean hasteko eta beharra egongo balitz 8an deialdi berezia egon daiteke.
 - Lehenengo hamabostaldian bajak eta jubilazioak eskeiniko dira eta bigarren hamabostalditik aurrera lan banaketa ordezkapenak.